

KOSTUEN EGITURA

Atal hau, kostuen egitura gure enpresaren jasagarritasuna eta errentagarritasuna bermatzeko oinarrietako bat da. Honek gure eragiketen eta produktu edo zerbitzuen kostuak ulertzea eta kontrolatzea ahalbidetzen digu. Egitura hau hiru kategoriatan banatzen da: hasierako inbertsioak, kostu finkoak eta kostu aldakorak.



HASIERAKO INBERTSIOAK:

Hasierako inbertsioak, behin bakarrik ordaintzen duzun materiala da, erosten duzu momentuan zehazki, ordenagailua, dendako apaingarriak... adibidez.

INBERTSIOA	KOSTUA
ALOKAIRUA	2000€
ORDENAGAILUA	599€
KUTXA ERREGISTRATZAILEA	270€
ERAKUSLEHIOKO ALTZARIAK	350€
DENDAKO APAINGARRIAK	540€
DATAFONOA	130€
HASIERAKO MATERIALA (dendan jarriko duguna + saltzen hasten garenean beharko duguna)	30.000€
ALARMA	100€
GUZTIRA:	33.989€

Hasierako inbertsioetarako 33.989€ beharko ditugula aurreikusten dugu. Gure ustez hau nahikoa izango zen gure proiektua aurrera eramateko eta gure dendan lehenengo salketak egiteko.

HILABETEKO KOSTUAK: (finkoak/aldakorak)

Hilabeteko kostuetan, enpresak hilabetero diru kantitate bat ordaindu behar duen kostuak dira, finkoetan beti diru kantitate berdina da, aldakorretan ordean hilabetero diru kantitatea aldatu egiten da.

Kostu finkoak enpresaren produkzio mailarekin edo salmentekin zer ikusirik ez duten kostuak dira, hilabetero beti ditu kantitate berdina ordaindu behar direnak, hala nola, alokairua, soldatak, mantentze lanak...

KOSTU FINKOAK	HILABETEKO KOSTUA	URTEKO KOSTUA
ALARMA ZERBITZUA	54,90€	12 x 54,90€ = 658.8€
LOKALAREN ALOKAIRUA	1500€	12 x 1500€ = 18000€
SOLDATAK	5 x 1500€ = 7500€	12 x 7500€ = 90.000€
TELEFONO TARIFA	38€	12 x 38€ = 456€
WEBGUNEAREN DOMEINU	16€	12 x 16€ = 192€
BANKUARI ESKATUTAKO MAILEGUA	701.76€	12 x 701.76€ = 8.421,12€ (96 hilabeteetan)
GUZTIRA:	9.810,66€	117.727,92€

Kostu aldakorrak, aldiz, enpresaren produkzioaren edo salmentak kopuruaren arabera aldatzen direnak dira, esaterako lehengaiak, banaketa-gastuak...

KOSTU ALDAKORRAK	KOSTUA
ARKUA	300€
GURPILDUN AULKIA	4000€
ZARATADUN BALOIA	40€
BIZIKLETA	3000€
IGERIKETA	200€
KAXA	0,50€
BIDALKETA GASTUA	150€
GUZTIRA	7690,50€

*Taulako prezio guztiak gutxi gorabeherako batzuk dira, 7690,50€ak ura, gasa eta argia kontuan hartu gabe izango lirateke, baina hiru horietarako ere dirua gordeko genuke hilabete bukaeran ordaintzeko, kontuan izanda hilabetero prezioa aldatuko dela

Kostuen egituraren azterketa etengabe aztertzea eta eguneratzea funtsezkoa da, enpresaren egoera ekonomikoa eta merkatuaren aldaketak kontuan izanik.